

2015EKO URRIAREN 15EAN SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hamabosta

HILABETEA: Urria

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

LEHENDAKARIA: Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo ordezkaria

BILDUAK: Luis Garmendia Sagastume, Aramako ordezkaria
Asier Rodriguez Etxeberria, Ataungo ordezkaria
Edorta Diaz del Rio, Beasaingo ordezkaria
Garikoitz Aiesta Etxaniz, Ezkio-Itsasoko ordezkaria
Arantxa Bidegain Ormazabal, Gabiriako ordezkaria
Jesus María Garmendia Gorostidi, Gaintzako ordezkaria
Igor Ariztimuño Iparragirre, Idiazabalgo ordezkaria
Asier Garro Sodupe, Itsasondoko ordezkaria
Ane Irastorza Izagirre, Lazkaoko ordezkaria
Amagoia Naldazi Mingo, Lazkaoko ordezkaria
Koldobike Olabide Huelga, Legazpiko ordezkaria
Oscar Valbuena Pascual, Legazpiko ordezkaria
Mariano Garmendia Iparragirre, Legorretako ordezkaria
Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako ordezkaria
Jokin Garmendia Arruabarrena, Olaberriko ordezkaria
Olaia Izagirre Cruz, Ormaiztegiko Udala
Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkaria
Igor Zubillaga Aguado, Urretxuko ordezkaria
Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria
Jose Antonio Etxabe Nazabal, Zaldibiko ordezkaria
Joseba Izagirre Arocena, Zegamako ordezkaria
Amaia Junquera Landeta, Zeraingo ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria

ETORRI GABEAK: Eluska Iburguren, Altzagako ordezkaria
Ordiziako ordezkariak izendatu gabe daude
Ricardo Lozano Landart, Zumarragako ordezkaria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Iñaki Erauskin Urretabizkaia Zerbitzuburuak.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko irailaren 16ko aktaren berri eman ondoren, aldaketa hauek egiten dira:

- Bilerara ez bertaratutako Tomas Etxaniz Mendiguren, Ezkio-Itsasoko ordezkaria jartzen duen tokian, Garikoitz Aiesta Etxaniz Ezkio-Itsasoko ordezkaria jarri behar du.
- Eskaera eta galderetan, “datorren urteko igoera bestalde %43 ingurukoa izango da”, jartzen duen tokian, ondorengoa esan behar du: “datorren urteko igoera bestalde %53 ingurukoa izango da”.

Besterik esateko ezean, akta aho batez onartu da, aldaketak barne direla.

2.- MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIEN APARTEKO EKARPENEA: 2015eko abenduaren 31rako aurreikusten den aurrekontu-emaizta negatiboari eta Altxortegiko Gerakin negatiboari aurre egiteko Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrien aparteko ekarpena onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da, BETEAN enpresak 2015eko aurrekontua ixteko egin duen aurreikuspenari buruzko txostena eta txosten horren ondorioa, hain zuzen ere:

- 2015. ekitaldi ekonomikorako aurrekontuaren emaitza negatiboa izango litzateke, 1.664.482,00 €tan.
- 2015. ekitaldi ekonomikorako altxortegiaren gerakina, 2015-12-31rako aurreikusita dagoena, negatiboa izango litzateke 665.274,00 €tan.

Une honetan, Altzagako ordezkaria sartu da batzarraldian.

Azaldu da horren zergatia zera dela: GHKrekin formalizatzeko onartu zen hitzarmenaren arabera urrian zabortegia irekitzea aurreikusi zen eta horren ondorioz diru-sarrerak egongo ziren, baina ez da horrela izan, zabortegia irekitzeko proiekturik ere ez delako egin. Aurten ez da irekiko eta ez da diru-sarrerarik egongo.

Nahiz eta gerakin bat egon, udalek aparteko ekarpenak egin behar dituzte. Bestela, porrot-egoeran geratuko litzateke Mankomunitatea eta Foru Aldundiaren esku geratuko litzateke. Mankomunitatean kudeatzen duen zaborren “baja” (“alta” GHK dagokio), minimoen azpitik geratuko litzateke.

Gerakina negatiboa izanda, gastuek ere proportzio horretan murriztu beharko lirateke. Gastuak ez badira murrizten, mailegua formalizatu beharko litzateke, baina mailegu horri aurre egiteko udalek egin beharko litzateke ekarpenak. Zabortegia ixteko fondoa ere badago, baina fondo horrek izaera finalista duenez, ezin da erabili defizita estaltzeko.

Ezagutzera eman da udalek egin beharreko ekarpenaren taula, beti ere, gerakina 0 izateko. Zerbait geratzea nahi izango balitz, ekarpena handiagoa izango litzateke.

APARTEKO UDAL EKARPENA / APORTACION MUNICIPAL EXTRAORDINARIA		
UDALERRIAK MUNICIPIOS	2015eko partehartze portzentaia Porcentaje de participación 2015	Aparteko ekarpena Aportación extraordinaria
ALTZAGA	0,3153%	2.097,83 €
ARAMA	0,3584%	2.384,35 €
ATAUN	2,5359%	16.870,59 €
BEASAIN	17,0250%	113.262,80 €
EZKIO-ITSASO	1,2355%	8.219,38 €
GABIRIA	0,8809%	5.860,09 €
GAINTZA	0,3874%	2.577,18 €
IDIAZABAL	3,0383%	20.213,02 €
ITSASONDO	1,1509%	7.656,51 €
LAZKAO	7,7876%	51.808,98 €
LEGAZPI	12,4054%	82.529,88 €
LEGORRETA	2,1249%	14.136,27 €
MUTILOA	0,8826%	5.872,02 €
OLABERRIA	2,7423%	18.244,10 €
ORDIZIA	13,7875%	91.724,92 €
ORMAIZTEGI	2,1982%	14.623,97 €
SEGURA	2,1166%	14.080,87 €
URRETXU	9,1369%	60.785,33 €
ZALDIBIA	2,4576%	16.349,47 €
ZEGAMA	2,1911%	14.576,69 €
ZERAIN	0,6670%	4.437,62 €
ZUMARRAGA	14,5748%	96.962,14 €
TOTAL	100,0000%	665.274,00 €

Lehendakariak esan du GHKrekin onartu zen hitzarmena salatu zutela, zulo batzuk zeudelako. Bigarren hitzarmena nahiz eta onartu, ez zen sinatu baina hori ere salatu egin zen. Lehendakariaren ustetan aurreko legealdian egion ez zirenak daukaten arazoa da euren herrian azaltzea orain zer gertatzen ari den.

Segurako ordezkariak proposatu du, aurreko legealdian lehendakaria izandakoari batzorde errektorerara etortzeko deia egiteko azalpena eman ahal izateko.

Beste batek dio proposamen horrekin ados dagoela, baina historikoki nola jokatu den jakitea ere ez litzatekeela gaizki egongo.

Lehendakariak eta azken bi legealditan gutxienez egon den ordezkariak esan dute, aurreko legealdian izan ezik, diskrepantziak entzun eta gaiak adostu egiten zirela eta gehienetan aho batez onartzen zirela erabakiak. Azkeneko legealdian aldiz, ez da horrela gertatu.

Urretxuko ordezkariaren esanetan, egoera hau egin den kudeaketaren ondorioa bada ere, bakoitzak bere herrian erantzukizunak eskatu beharko dituela dio, zeren eta Urretxuko lehengo legealdiko ordezkariari, EAJ taldekoa izanda, BILDUK agindua eman zion hitzarmenaren alde bozkatzeko.

Beste ordezkari bati ondo iruditzen zaio lehendakari ohiari azalpenak eskatzea, baina galdetu du ea GHKri ere ez zaion azalpenak eskatu behar.

Lehendakariak dio, Mankomunitatea hitzarmena horretako zati bat dela eta GHKk Kontsortzioan eman beharko dituela azalpenak. Hitzarmenaren testua aztertzeke aukerarik ere ez zela eman esan du. Batzarra egin zen egunean bertan aurkeztu zen eta ezta teknikoek ere ez zuten aukera hori izan. Batzarra baino lehen banatu zen aurrekontua ere otsailetik aurrea zaborregia itxita egongo zen prebisiorekin egina zegoen, alegia urrian ez zela irekiko.

Kontuhartzaileak, bileran parte hartzen duen norbaiten galderari erantzunez esan du, udal bakoitzak ekarpena egiteko obligazioa 2015eko aurrekontuan errekonozitu egin beharko litzatekeela eta horretarako kreditua behar dela. Noiz ordaindu behar den beste gauza bat.

Une honetan Ordiziko ordezkaria batzarralditik atera da.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren eta Lehendakariak proposatuta ondorengo erabakia hartu da:

1.- Udalei epe bat ematea eztabaidatu ahal izateko Sasieta Mankomunitateari aparteko ekarpena egitea.

2.- Aurreko legealdian Lehendakari izan zenari, urriaren 26an egingo den Batzar Errektorera etortzeko deia egitea tratatutako gaiari buruz azalpenak emateko.

3.- INFORMAZIOA: 2016 ekitaldirako aurreikusitako aurrekontu proiektua eta udal-ekarpenei buruzko informazioa.

Datorren urteko aurrekontuari buruzko informazio eman da, adieraziz 11.000.730,00 €koa izango dela.

Gastuen eta diru sarreraren egoera kapituluka ondorengoa da:

SARREREN AURREKONTUA. LABURPENA KAPITULUKA		
Kap.	Izena	Euroak
I	Zuzeneko zergak	0
II	Zeharkako zergak	0
III	Tasak eta bestelako sarrerak	1.527.720
IV	Transferentzia arruntak	5.613.970
V	Ondare-Sarrerak	94.350
VI	Inbertsio Errealen Besterenganaketa	0
VII	Kapital-Transferentziak	0
VIII	Finantza-Aktiboak	3.764.690
IX	Finantza-Pasiboak	0
		11.000.730

GASTUEN AURREKONTUA. LABURPENA KAPITULUKA		
Kap.	Izena	Euroak
I	Pertsonal-Gastuak	564.990
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	7.530.350
III	Finantza-Gastuak	0
IV	Transferentzia arruntak	0
VI	Inbertsio errealak	1.075.000
VII	Kapital-Transferentziak	1.737.540
VIII	Finantza-Aktiboak	92.850
IX	Finantza-Pasiboak	0
		11.000.730

2016. urtean zaborregia itxita egongo denez, udalaren ekarpenak handiagoak izan behar dute, zaborregian zaborrak botatzeagatik diru-sarrerarik izango ez delako.

Gastuak zeintzuk direnen azalpena egiten da eta Funes eta Lapatxera hurrenez hurren eramaten diren organikoaren eta errefusaren hondakinen transferentzia GHKri egiteagatik, Kontsorzioan kobratzen duen prezioa garestia dela aipatu da. Kopuru horren zergatia GHKri galdetzeko adierazi da.

Mailegurik ez dagoenez, ez direla inolako interes edota komisiorik ordaintzen ezagutzera eman da eta aldi berean zaborregia ixteko fondoan, 21.002.580,58 € daudela jakinarazi da. Nahia, 22.000.000,00ra iristea izango litzateke, baina kopuru horretara iristea zaila izango dela aitortu da.

Jarraian diru-sarrerak zeintzuk diren azaldu dira eta jasotako paperaren salmentagatik, ECOEMBEsek ordaintzen duenagatik jasotzeaz gain, udalek egin beharreko ekarpenak daude.

Udalen ekarpena kostu eta diru sarreren artean dagoen defizita estaltzeko izaten da. 2016. urtean defizit hori, 5.347,960,24 €koa izango da. Datorren urterako udalek egin beharreko ekarpenak estatutuen arabera kalkulatu dira, hau da, kostu finko eta aldakorrek kontuan izanda. 2015. ekitaldi ekonomikoarekiko, udalek egin beharreko ekarpenak %29,4ko igoera dute.

UDALERRIAK	2015 EKITALDIA	2016 EKITALDIA
ALTZAGA	13.028,95 €	10.662,43 €
ARAMA	14.808,39 €	14.525,64 €
ATAUN	104.777,75 €	96.633,95 €
BEASAIN	703.438,32 €	1.143.860,46 €
EZKIO-ITSASO	51.047,91 €	46.802,50 €
GABIRIA	36.395,11 €	28.135,05 €
GAINTZA	16.006,03 €	10.362,53 €
IDIAZABAL	125.536,45 €	200.897,62 €
ITSASONDO	47.552,07 €	54.996,89 €
LAZKAO	321.768,70 €	395.547,76 €
LEGAZPI	512.566,20 €	539.706,61 €
LEGORRETA	87.795,79 €	134.148,02 €
MUTLOA	36.469,19 €	18.523,43 €
OLABERRIA	113.308,13 €	72.268,90 €
ORDIZIA	569.673,58 €	861.621,52 €
ORMAIZTEGI	90.824,73 €	65.758,49 €
SEGURA	87.451,71 €	109.935,30 €
URRETXU	377.517,86 €	515.518,15 €
ZALDIBIA	101.541,22 €	110.900,06 €
ZEGAMA	90.531,05 €	104.604,20 €
ZERAIN	27.560,59 €	19.071,71 €
ZUMARRAGA	602.200,26 €	793.479,02 €
GUZTIRA	4.131.799,99 €	5.347.960,24 €

Mankomuniateak zabortegirik izango ez balu, bere aurrekontua Zabortegia klausuratzen denean aurrekontua 6,5 milioi ingurukoa izango litzateke.

Azalpen hauek eman ondoren, azaldu da 2016. ekitaldi ekonomikarako aurrekontua beste bileran batean onartzea proposatuko dela.

4.- IDAZKARI ETA KONTUHARTZAILE LANPOSTUEI BURUZKO PROPOSAMENA.

Gai honetaz aipatu da, 1991koak diren estatutuak 6. artikuluan adierazten dutela, Idazkari eta Kontuhartzaile funtzioak beteko dituztela Lehendakaria diren herrikoak. Orain funtzio hauek betetzen ari direnak, ordea, idatzi baten bidez adierazi dute, Toki Entitatea den Mankomuniateak bi lanpostu horiek izateko edo, kasu bada, Idazkari Kontuhartzaile lanpostua izateko, hori ez dela legeak ezarritako prozedura.

Mankomunitateak 2015. ekitaldi ekonomikorako duen aurrekontua 11.490.960 €koa da eta Mankomunitatea osatzen duen udalerriek ordezkaturako eskumenak, hiri hondakinen kudeaketa eta zabortegia ustiatzea, dira.

Egun, Idazkari eta Kontuhartzaile funtzioak betetzen ditugunon eginkizunak:

- Estatutuetan xedatutakoan bakarrik oinarritzen da, eraginpeko diren funtzionarioekin adostu gabe, 1732/1994 Errege Dekretuaren 31 artikuluan xedatutakoaren aurka.
- Foru Aldundiaren aldetik inolako baimenik ez dago.

Legearen arabera, gaikuntza nazionaleko funtzionarioek burutu beharko dituzte lanpostu hauek, baina era berean, eta prozedura beraren bidez, Udalen Mankomunitateak ... gaikuntza nazionaleko funtzionarioei erreserbatutako berezko postuak mantentzearen betebeharretik salbuetsiak izan litezke, bere zerbitzuen bolumena edo baliabideak postu horien mantenimendurako nahikoak ez direnean. Gertazen dena da, Epaitegi Gorenaren 2779/2012 Sententzia bat dagoela Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Administrazio Publikoko Zuzendariaren 2008-04-16ko Ebazpena deuseztatuz. Ebazpen horren bidez Eusko Jaurlaritzak Guardia-Araba Errioxako Kuadrilla gaikuntza nazionaleko funtzionarioei erreserbatutako Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua sortzearen betebeharretik salbuesten zuen, hain zuzen ere, ulertu baitzuen gaikuntza nazionala duten toki administrazioako plaza mantentzeko zerbitzu edo baliabide urritasunik ez zegoela, nahiz eta Kuadrillaren 2008. urteko aurrekontua, 2.666.492,88 €koa izan.

Hori guztia kontuan izanda, egun idazkari eta kontuhartzaile funtzioak betetzen dituztenek, Batzar Errektoreari eskatzen die, Eusko Jaurlaritzako funtzio publikoaz arduratzen den departamenduari Sasieta Mankomunitatearentzat Idazkari/Kontuhartzaile plaza sortzeko eskaria egiteko onartzea ondoren legeak ezartzen duen prozedura jarraituz hornitu ahal izateko.

Lehendakariak esan du gaia aztertzen ari dela, kontsultatutako Mankomunitateek ere ez dituztelako lanpostu horiek beraien plantilan sortu. Bere ustetan irtenbide bat izan liteke Mankomunitatea osatzen duten herriko idazkari nahiz kontuhartzaileei eskaintzea Mankomunitateko lanpostu horiei dagozkien funtzioak betetzeko. Adierazi du hurrengo Batzorde Errektorea egiten denerako proposamen bat ekarriko dela.

5.- BATZAR ERREKTOREKO BILERETARA ETORTZEAGATIK ASISTENTZIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Ezagutzera eman da, legearen arabera legealdi bakoitzaren hasieran bileretara etortzeagatik ordaindu beharreko asistentziak ordaintzea onartu egin behar dela, kopurua zehaztuz.

Orain arte onartutako asignazioa 30,00 €koa izan da eta kopuru horrekin jarraitzea proposatzen da.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 22
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 2

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

PREMIAZKO PUNTUA

Eskaera eta galdera baino lehen premiazko puntua sartzea proposatu da, hain zuzen ere, UTE GARBIArekin kontratua aldatzea.

Premiazko puntua tratatzeari buruzko bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 21
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 3

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da UTE GARBIArekin kontratua aldatzeko puntua eztabaidatu eta bozkatzea.

Ezagutzera eman da, Legazpiko Udalbatza Osoak 2015eko irailaren 30ean hartutako erabakia, hau da:

“Sasietako Zuzendaritza Batzordeari egingo zaion eskaria onartzea, Bertan Garbia enpresa-elkartearekin duen kontratua aldatzeko espedientea irekitzea eskatuko da, programatutako irekiera duen sarraila elektronikoa duen eta astean hirutan hustuko den edukinontzi grisa ezartzeko.”

Orain proposamen hau egiteko, Sasieta Mankomunitatearen esparruan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuari buruzko kontratua aldatzeko baldintza pleguak esaten dutena bete da, hau da:

- 1.- Zerbitzuberuak txostena eman du (2015-10-08).
- 2.- Kontratatari kontratua aldatzeko eskaeraren berri eman zaio (2015-10-09).
- 3.- Kontratatari azterlan-ekonomikoa aurkeztu du (2015-10-15).

Horren ondorioz, proposatu da UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzea.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 15
 Aurkako botoak: 0
 Abstentzioak: 7

Beraz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Sasieta Mankomunitatearen esparruan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko, UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzea, Legazpian programatutako irekiera duen sarraila elektronikoa duen eta asteen hirutan hustuko den edukiontzi grisa ezartzeko.

Bigarren. Kontutan izanda 2015ko irailaren hamaseian egindako batzarrean ere Lazkaon edukiontzietan oinarritutako bilketa-sistema jartzeko kontratua aldatu egin zela (esleitutako prezioan -%1,32 aldaketa eraginez) eta oraingoan Legazpin edukiontzi grisak jarri ahal izateko kontraturen aldaketak +%0,07ko igoera suposatzen duela, kontratuaren prezioa, bi aldaketak barne direlarik, 3.684.384,74 €koa izatera pasatuko da.

CONCEPTO	€/año	Modificación parcial nº1: Lazkao (16-09-2015)		Modificación parcial nº2: Legazpi (15-10-2015)		MODIFICACION ACUMULADA	
		Modificación	€/año	Modificación	€/año	Modificación	€/año
Costes de personal	2.097.152,00 €						
Costes de combustible	374.248,49 €						
Otros costes materiales	330.489,16 €						
Amortización de las inversiones	244.892,90 €						
Coste de Ejecución Material	3.046.782,55 €	-41.217,56 €	3.005.564,99 €	2.250,03 €	3.049.032,58 €	-38.967,53 €	3.007.815,02 €
Gastos Generales y Beneficio Industrial (9%)	274.210,43 €		270.500,85 €		274.412,93 €		270.703,35 €
Gastos Financieros	70.922,30 €		70.922,30 €		70.922,30 €		70.922,30 €
BASE IMPONIBLE	3.391.915,28 €		3.346.988,14 €		3.394.367,81 €		3.349.440,67 €
IVA (10%)	339.191,53 €		334.698,81 €		339.436,78 €		334.944,07 €
PRECIO TOTAL ADJUDICADO	3.731.106,81 €		3.681.686,95 €		3.733.804,59 €		3.684.384,74 €
MODIFICACION DEL PRECIO DE ADJUDICACIÓN			-1,32%		0,07%		-1,25%

Hirugarren. Erabaki honen berri Legazpiko Udalari eta kontratatari ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekursoen aipamena eaginez.

6.- ESKARIA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran gaueko bederatziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.